

# AZKOITIKO INGURUMEN MAHAIA SORTU ETA EGITURATZEKO PROZESUA

2023ko apirila



# AURKIBIDEA

|          |   |           |
|----------|---|-----------|
| <b>1</b> | <b>SARRERA.....</b>   | <b>1</b>  |
| <b>2</b> | <b>HELBURUAK.....</b>                                       | <b>2</b>  |
|          | 2.1 Helburu nagusia.....                                    | 2         |
|          | 2.2 Helburu zehatzak.....                                   | 2         |
|          | 2.3 Zeharkako helburuak.....                                | 2         |
| <b>3</b> | <b>PARTAIETZA-PROZESUA .....</b>                            | <b>3</b>  |
|          | 3.1 Aurrelanak .....  | 4         |
|          | 3.2 Egitura definitzen .....                                | 5         |
|          | 3.3 Beharrak identifikatzen – Estrategiak diseinatzen ..... | 6         |
|          | 3.4 Lan-plangintza garatzen .....                           | 6         |
| <b>4</b> | <b>AZKOITIKO INGURUMEN MAHAIA .....</b>                     | <b>8</b>  |
|          | 4.1 Ingurumen Mahaiaren funtzionamendurako irizpideak ..... | 8         |
|          | 4.2 Ingurumen Mahaiaren bide-orria.....                     | 8         |
| <b>5</b> | <b>PROZESUAREN BALORAZIOA.....</b>                          | <b>11</b> |
| <b>6</b> | <b>ERANSKINAK.....</b>                                      | <b>13</b> |

## 1 SARRERA

Azkoitiko Udalak herriaren 700. urteurrena gertu dela baliatuz *Herrilab+700* hausnarketa prozesu ireki eta anitza jarri zuen martxan 2021. urtean, eta herriko diagnostiko partekatua izan da prozesuaren emaitza nagusia. 2022 urtean berriz, eta herri-diagnostikotik abiatuta, identifikatutako erronkei erantzuteko herri-plana garatu da.

Testuinguru honetan, eta *Herrilab+700* prozesuan zehar Azkoitiko eragile eta herritarrek luzatutako eskaerari erantzunez, Azkoitiko Udalak Ingurumen Mahaia sortzeko urratsa eman du, ingurumen erronkei herri ikuspegiarekin erantzutea helburu duelarik.

Honela, Elhuyarren aholkularitzarekin, Ingurumen Mahaiaren oinarriak definitu eta Azkoitiko ingurumen behar eta erronkei modu bateratuan erantzuteko lan-plangintza adostu dira, tartean, ingurumen-komunitatearen elkar ezagutza sustatu delarik.

## 2 HELBURUAK

### 2.1 Helburu nagusia

Azkoitiko Ingurumen Mahaia sortzea, herriko ingurumen-beharrei eta -erronkei modu bateratuan erantzuteko eta herri-mailako ingurumen-ekimenak elkarlanean antolatzeke.


### 2.2 Helburu zehatzak

- Ingurumen Mahaiaren egitura definitzea: xedea, helburuak, osaera, funtzionamendua eta dinamika.
- Herriko ingurumen-beharrak zein diren identifikatzea eta horiei erantzuteko estrategiak zehaztea, ingurumen-plana oinarrian hartuta.
- Estrategiak garatzeko ekintzak zehaztea, gaur egun egiten denetik abiatuz eta ekimen berriei lekua eginez.
- Lan-plangintza diseinatzea eta garatzen hasia.

### 2.3 Zeharkako helburuak

- Ingurumen arloko eragile desberdinen, herritarren eta Azkoitiko Udalaren arteko elkarlana sustatzea, barne-kohesioa landuz.
- Azkoitiko eragileak eta herritarrak politika publikoak egiterako orduan subjektu aktiboak izatea.
- Ingurumen Mahaiko kideak ahalduntzea eta kanpo-laguntzarik gabeko dinamika ahalbidetzeko baldintzak ezartzea.
- Ingurumenaren zaintzan oinarritutako lan-dinamikak sustatzea.

### 3 PARTAIDETZA-PROZESUA



Azkoitiko Ingurumen Mahaia sortu eta egituratzeko prozesua lau fasetan egin da:

### 3.1 Aurrelanak

Hasteko eta behin, prozesua abiatzeko baldintzak ezarri dira eta horretarako, talde eragilea izeneko lan-egitura aktibatu eta Azkoitiko ingurumen arloko eragileei prozesuaren berri eman zaie.

#### Talde eragilea

Talde eragilearen egitekoa prozesua arrakastatsua izateko baldintzak ezartzea izan da, adostutako lan-prozesua aurrera eramateko beharrezkoa informazioa bildu eta kudeatzearekin batera.

Talde eragilean Azkoitiko Udaleko ordezkari politiko eta udal teknikariez gain, Ingurumen Mahaiko hainbat kidek parte hartzea proposatu da eta horrela berretsi dute Ingurumen Mahaiko kideek. Zehazki, talde eragilean gutxienez Ingurumen Mahaiko bi ordezkari parte hartzea proposatu da, aukera dagoenean hirugarren ordezkari bat ere batuaz.

Honela, hurrengoek osatu dute Talde Eragilea:

| Izen Abizenak          | Ardura                                   |
|------------------------|--|
| Amaia Argarate         | Azkoitiko Udaleko ingurumen teknikaria   |
| Ana Azkoitia           | Azkoitiko alkateordea                    |
| Goretti Aldalur        | Azkoitiko Udaleko komunikazio teknikaria |
| Gurutz Garmendia       | Ingurumen Mahaiko kidea                  |
| Haritz Orbegozo        | Ingurumen Mahaiko kidea                  |
| Imanol Arrizabalaga    | Azkoitiko Udaleko ingurumen zinegotzia   |
| Jexux Mari Larrañaga   | Ingurumen Mahaiko kidea                  |
| Idurre Zugazagasti Aja | Elhuyar                                  |

Hala ere, eta aurrez adierazi bezala, prozesuaren hasieratik talde eragilean Ingurumen Mahaiko hainbat ordezkari parte hartzea aurreikusten zen arren, lan-egitura honetan Ingurumen Mahaiko zenbat kidek eta, zehazki, nork parte hartu Ingurumen Mahaia 3. bileran erabakienez gero, Ingurumen Mahaiko 3 ordezkari talde eragileko bilera bakarrean izan dira.

Talde eragilea aktibatzearekin batera, Azkoitiko Ingurumen Mahaia sortu eta egituratzeko prozesuaren berri emateko aurkezpen-saioa egin da, partaidetza-prozesuaren helburuak eta lan-prozesua aurkeztea helburu. Aurkezpen-saioa Azkoitiko Udalbatza osatzen duten alderdietako ordezkariak; herriko, zein eskualdeko ingurumen arloko eragile eta erakundeak; eta ingurumen gaietan interesa duten herritarrak gonbidatu dira.

| Aurkezpen-saioa   |
|---|
| 25 lagun, 10 emakume eta 15 gizon   |
| Azkoitiko Udaleko ordezkari politikoak 5, udal-teknikariak 2 eta 12 eragile, hauek ordezkaturik 18 lagun. |

Honela, *Aurrelanak* izeneko fase honetan talde eragilea bi aldiz bildu da:

- Lehenengo bileran Elhuyarren proposamena oinarri, Azkoitiko Ingurumen Mahaia sortzeko prozesua ahalik eta doituena, errealena eta egingarriena izateko ekarpenak egin dira. Halaber, partaidetza-prozesuaren egutegia zehaztu eta oinarritzko komunikazio lanak adostu dira. Tartean, Ingurumen Mahaiaren aurkezpen-saioa prestatu da.
- Talde eragileko bileran berriz, Ingurumen Mahaiaren proposamenak zer nolako harrera izan duen baloratu da, Ingurumen Mahaiaren lehen bileren planteamendua landu eta adostearekin batera.

Tartean, talde eragileko kideak Azkoitiko Udalean ordezkariak duten alderdi guztietako zinegotziekin bildu dira, Ingurumen Mahaian Azkoitiko Udalbatzako ordezkari politikoen parte hartzea nolakoa izango den argitu eta adosteko.

### 3.2 Egitura definitzen

Fase honetan, Ingurumen Mahaiaren oinarriak ezarri ditugu eta horretarako 2 bilera egin dira, hurrengo galderak erantzutea helburu: Zein da Ingurumen Mahaiaren xedea? Zein helburu izango ditu Ingurumen Mahaiak? Nork osatuko dugu Ingurumen Mahaia? Norbait falta da? Zein izango da funtzionamendua eta lan-dinamika? Galdera guzti hauen erantzunak *Ingurumen Mahaiaren funtzionamendurako irizpideak* izeneko dokumentuan bildu dira, zeina 4.1 puntuan zehazten den.

Honez gain, eta Ingurumen Mahaiaren hastapenak izanik, bilerak parte hartzaileen espektatibak ezagutu eta doitzeko baliatu ditugu, baita kideen artean ezagutu eta konfiantza-giroa eraikitzeko ere.

| Ingurumen Mahaiaren 1. bilera  |
|--|
| 12 lagun, 5 emakume eta 7 gizon  |
| Azkoitiko Udaleko ordezkari politikoak 1; udal-teknikariak 1; eta 9 eragile, hauek ordezkatzuz 10 lagun.   |
| Gai-zerrenda: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Sarrera eta aurkezpenak</li> <li>• Espektatibak lantzea</li> <li>• Ingurumen Mahaia sortu eta egituratzeko prozesuaren aurkezpena</li> <li>• Ingurumen Mahaiaren xedea eta helburuak adostea</li> <li>• Balorazioa</li> </ul> |

| Ingurumen Mahaiaren 2. bilera   |
|---|
| 14 lagun, 5 emakume eta 9 gizon   |
| Azkoitiko Udaleko ordezkari politikoak 1; udal-teknikariak 2; 8 eragile, hauek ordezkatzuz 10 lagun; eta herritar 1.  |
| Gai-zerrenda: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Girotzea</li> <li>• Ingurumen Mahaiaren xedea eta helburuak berrestea</li> <li>• Ingurumen Mahaiaren antolaketa eta funtzionamendua lantzea</li> <li>• Balorazioa</li> </ul> |

Fase honetan zehar, Talde Eragileak 3. bilera egin du, Ingurumen Mahaiaren lehen bi bilerak baloratu eta hurrengo bi bilerak prestatzeko.

### 3.3 Beharrak identifikatzen – Estrategiak diseinatzen

Behin Ingurumen Mahaiaren egitura adostuta, herri ikuspegi batetik ingurumen alorreko lan-lerroak identifikatu dira, ingurumenak barne biltzen dituen alor desberdinei toki eginez, hala nola: basoen kudeaketa, biodibertsitatea, elikadura burujabetza, energia berriztagarriak, hondakinen kudeaketa, ibai-ekosistemak, mugikortasun jasangarria, ...

Eta lan-lerro horiei erantzuteko jarduera-lerroak eta jarduerak landu dira, gaur egun ingurumen arloan egiten den lana aitortuz. Jardueran horien garapenerako proposamenak eta ekintzak jaso eta lehenetsi dira, honela Ingurumen Mahaiak hurrengo hilabeteetan zein gairi helduko dion erabaki da. Honen emaitza, Azkoitiko Ingurumen Mahaiaren bide-orrian izeneko dokumentuan jaso da, 4.2 puntuan laburbiltzen dena.

| Ingurumen Mahaiaren 3. bilera  |
|--|
| 14 lagun, 6 emakume eta 8 gizon  |
| Azkoitiko Udaleko udal-teknikariak 2; 9 eragile, hauek ordezkatzuz 11 lagun; eta herritar 1.   |
| Gai-zerrenda: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Girotzea</li> <li>• Azkoitiko Ingurumen Mahaiaren funtzionamendu irizpideak berrestea                             <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Talde Eragilea osatzea</li> </ul> </li> <li>• Azkoitiko ingurumen erronkak identifikatzea</li> <li>• Balorazioa</li> </ul> |

| Ingurumen Mahaiaren 4. bilera  |
|--|
| 14 lagun, 7 emakume eta 7 gizon  |
| Azkoitiko Udaleko ordezkari politikoak 1, udal-teknikariak 2; 7 eragile, hauek ordezkatzuz 10 lagun, eta herritar 1  |
| Gai-zerrenda: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Girotzea</li> <li>• Azkoitiko ingurumen erronketatik ekintzetara                             <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Banakako eta taldekako lanketa</li> </ul> </li> <li>• Balorazioa</li> </ul> |

Fase honetan zehar, Talde Eragileak 4. bilera egin du, non, lehen aldiz, Ingurumen Mahaiko ordezkariak ere parte hartu duten. Bileraren helburua orain artekoaren balorazioa egitea eta hurrengo bilerak prestatzea izan da.

### 3.4 Lan-plangintza garatzen

Ingurumen Mahaiko azken bileretan lan-plangintza aurrera eramateko baldintzak ezarri ditugu, helburu partekatuak identifikatuz eta partaide desberdinen arteko elkarlana sustatuz.



Bilera hauek baliagarriak izan dira Ingurumen Mahaiaren bide-orrian lehenetsitako elikadura- eta energia-burujabetza bi jarduera-lerroak lurreratu, aurrera begirako lanketa irudikatu eta baldintzak lantzeko; baita bertan jasotako hainbat jarduereri toki egiteko ere.

| <b>Ingurumen Mahaiaren 5. bilera</b>   |
|--|
| 9 lagun, 3 emakume eta 6 gizon   |
| Azkoitiko Udaleko ordezkari politikoak 1, udal-teknikariak 2; 3 eragile, hauek ordezkatzuz 5 lagun, eta herritar 1   |
| Gai-zerrenda: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Girotzea</li> <li>• Ingurumen Mahaiaren bide-orria aurkeztu dugu</li> <li>• Elikadura-burujabetzaren eta energia-burujabetzaren baitako ekintzei nola ekin lanketa</li> <li>• Balorazioa</li> </ul> |

| <b>Ingurumen Mahaiaren 6. bilera</b>  |
|---|
| 13 lagun, 8 emakume eta 5 gizon   |
| Azkoitiko Udaleko ordezkari politikoak 1, udal-teknikariak 3; 6 eragile, hauek ordezkatzuz 8 lagun, eta herritar 1  |
| Gai-zerrenda: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Sarrera</li> <li>• Aurreko saioan identifikatutako ekintzen lanketari ekin: Urkomeren lanaren sozializazioa</li> <li>• Azkoitiako udalak Ingurumen-Mahaiaren bidelaguntzaren inguruan hartutako erabakien berri ematea.</li> <li>• Ingurumen-Mahaiaren orain arteko ibilbidearen balorazioa.</li> <li>• Itxiera</li> </ul> |

Fase honetan, Talde Eragileak azken bilera egingo du eta bertan prozesuaren balorazioa egingo da, aurrera begirako hobetzekoak identifikatzearekin batera.

## 4 AZKOITIKO INGURUMEN MAHAIA

Hurrengo orrietan Azkoitiko Ingurumen Mahaia sortu eta egituratzeko prozesuan landu eta adostutakoak jasotzen dira.

### 4.1 Ingurumen Mahaiaren funtzionamendurako irizpideak

Ingurumen Mahaia sortu eta egituratzeko prozesuko lehen bi bileretan, Azkoitiko Ingurumen Mahaiaren antolaketa eta funtzionamendua landu eta adostu dira, zeinak *Azkoitiko Ingurumen Mahaiko funtzionamendu-irizpideak* izeneko dokumentuan jaso diren.


Besteak beste hurrengoak dira adostutako puntuak:

- Ingurumen Mahaiaren xedea
- Ingurumen Mahaiaren helburuak
- Ingurumen Mahaiaren osaera
- Ingurumen Mahaiaren sostengu eta jarraipenerako egitura
- Ingurumen Mahaiko bilerak eta hauen funtzionamendua
- Ingurumen Mahaiko barne-, zein kanpo-komunikazioa.

Ingurumen Mahaiaren funtzionamendurako oinarrizko dokumentua da hau, horregatik, Ingurumen Mahaiaren momentuko errealitatera egokitzeko, tartean behin, bertan jaso eta adostutakoa errebisatzea gomendatzen da.

### 4.2 Ingurumen Mahaiaren bide-orria

Ingurumen Mahaiaren hurrengo bileretan berriz, Azkoitin ingurumen arloko lan-lerroak zeintzuk diren identifikatu dira, baita horien baitako jarduera-lerroak eta jarduerak ere.



Jarraian, lan-lerro bakoitzaren eta bere baitako jarduera-lerro eta jardueren deskribapen labur bat jasotzen da:

#### 4.2.1 Biodibertsitatearen defentsa

Azkoitiko biodibertsitatearen defentsarako basoen, zein ibaien kudeaketa jasangarria izatea proposatzen da, sor litezkeen ingurumen arriskuen prebentziorako neurriak hartzearekin batera.

- Basoen kudeaketa jasangarria sustatzea. Herriko basoen inbentarioa osatu eta hauen erabilera eta sustapenerako plan bat egitea; honen baitan herri lurrak baso publikoa sortzeko baliatzea, bertako biodibertsitatea lehenetsiz eta korridore ekologikoa indartzuz; baita herritik gertu dauden natur guneak zaintzea eta hauen erabilera sustatzeko neurriak hartzea, hala nola: bide-sarea zaintzea, ibilbideen mapa berri bat egitea...
- Uraren eta ibaien kudeaketa jasangarria izatea. Besteak beste: ibai eta erreken kudeaketa indartzea, ibai-ibilguko gainerako herriekin koordinazioan; ibai eta errekek garbi mantentzea; eta hondakin isurketak ekiditeko hauen zainketa eta kontrola areagotzea.
- Ingurumen arriskuen prebentzioa egitea. Lur jauzien prebentziorako neurriak eta ardurak hartzea.

#### 4.2.2 Energia burujabetza

Energia burujabetzarako trantsizio energetikoa antolatzea azpimarratzen da.

- Trantsizio energetikorako bidea egitea. Horretarako, herrian energiaren ekoizpenerako zein aukera eta baliabide dauden aztertzea; udal eraikin eta zerbitzuetan iturri berriztagarriekin hornitzeko pausuak ematea; etxebizitza berrien eraikuntzan energia efizientziarako neurriak hartzen direla ziurtatzea; energiaren ekoizpen eta kontsumo alorrean aholkularitza-zerbitzu bat jartzea; eta sentsibilizazioa egitea.
- Oletako proiektu eolikoa eragitea, hau geldiarazteko aukerak aztertzea.

#### 4.2.3 Elikadura burujabetza

Elikadura burujabetzarako ekoizpen jardueretan eta salmenta-bideetan eragin daiteke, hala nola:

- Nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak duintzea. Baserriak biziberritzeko eta lurren errotazioa emateko egitasmoak sustatzea.
- Bertako produktuak eta hurbileko salmenta bideak indartzea. Alde batetik, gaur egun egiten dena ikusaraztea, Urkomek egiten duen lana ikusaraztea. Bestetik, bertako baserriarren lana balioan jartzeko azoka plaza berritzea; bertakoa eta ekologikoa sustatzeko egitasmoak martxan jartzea (baratza-tailerrak, informazio-kanpainak...); baratza publikoen eskaintza zabaltzea; eta herriko jantokietan bertako produktua eskaintzeko aukerak aztertzea.

#### 4.2.4 Ekonomia zirkularra

Ekonomia zirkularraz ari bagara ere, hondakinen kudeaketa jasangarriari egiten dio erreferentzia jarduera-lerro honek.

- Hondakinen kudeaketa jasangarria sustatzea. Hasteko eta behin, hondakinen kudeaketaren inguruko azterketa bat egitea proposatzen da; jasotako emaitzen berri eman eta hauen araberako hondakinen murrizketa eta birziklatzea sustatzeko kanpainak egitea; eta hondakinen prebentziorako gehiegizko bilgarri eta zaborrarekin amaitzeko egitasmo desberdinak martxan jartzea; tartean, iturriko uraren eskaintza handitzeko egitasmoak martxan jartzea

#### 4.2.5 Hirigintza eta lurralde antolaketa

Hiriguneari eta lurraldeari begiratuz, Azkoitiko berdeguneen kudeaketa jasangarri bat eskatzen da, lurralde maila mugikortasuna eta irisgarritasuna indartzearekin batera.

- Berdeguneen kudeaketa jasangarria egitea. Azkoitiko herri guneko berdeguneen kudeaketa eta zainketa-lanak planifikazioa indartzea; baita etxebizitza edo hirigintza-proiektu berrietan berdeguneak bermatzea.
- Mugikortasun eta irisgarritasuna hobetzea. Mugikortasun-plan batetik abiatuta; bat, oinezkoei toki egiteko eta autoak herrigunetik ateratzeko irtenbideak aztertzea; bi, bidegorri sarea hobetzea; hiru, industriaguneen mugikortasun-ohiturak aztertzea eta garraio publikoan heltzeko neurriak hartzea; lau, herri-bideen zainketarako irizpideak landu eta kudeaketa egokitzea; bost, Azkoitiko auzoetako autobus-zerbitzua indartzeko aukerak aztertzea; eta sei, mendiko pisten erabilera okerra kontrolatzea.

#### 4.2.6 Sentsibilizazioa eta kontzientziaketa

Azkoitiko herritarren ingurumen kontzientzia handitzeko sentsibilizazioa eta kontzientziaketa lehenesten dira, hainbat gairen inguruko informazioa eta ezagutza hedatu beharra azpimarratuz.

- Ingurumen erantzunkidetasuna indartzea. Azkoitiko ingurumen-astea berreskuratzea, tartean Ingurumen Mahaian landuko diren gaiak sozializatzeko.
- Arrisku teknologikoen berri ematea. Arrisku teknologikoen eta 5Garen inguruan Azkoitiko Udalak egindako azterlana herritarrei zabaltzea proposatzen da, gai honen inguruan herritarrak informatzea helburu.

#### 4.2.7 Politiken koherentzia

Ingurumen arloko politiken koherentzia beharrezkoa da ingurumen gaiak politika publikoaren maila guztietan eta zeharkakotasunez landu daitezela, eta horretarako ingurumen plangintza bat beharrezkoa ikusten da.

- Herri mailako ingurumen plangintza egitea.

## 5 PROZESUAREN BALORAZIOA

Azkoitiko Ingurumen Mahaia sortu eta egituratzeko prozesuaren balorazioa bi egitura desberdinetan egin da, hau da: eta alde batetik, Ingurumen Mahaiaren azken bileran; eta bestetik, talde eragilearen azken bileran.

Ingurumen Mahaiaren balorazioa, oro har, positiboa da, Azkoitin ingurumen arloan nor eta zertan dabilen ezagutzeko baliagarri izan den heinean. Hala ere, prozesuan hainbat zailtasun ere izan dira, zeinak kasu batzuetan etsipen sentimenduak azalerratu dituen. Hemen, partekatukoa:

### INDARGUNEAK

- Dinamika berria jarri da abian, orain artean ezagutu gabea. Positiboa izan da hori, abian jarri izana.
- Bide bati hasiera eman izana indargunea da, gai berdinen eremuan lana egiten duten eragileak saretu izana eta horri jarraipena ematea denboran.
- Elkar ezagutzeko balio izan du espazio honek eta baita batzuen eta besteen kezken berri jakiteko ere.
- Lehen 2-3 saioak jorratu beharreko gaia zein den eta beharrak identifikatzeko baliagarriak izan dira.
- Bisibilizazioa eman zaie mahaikideen kezkei.
- Bileretako dinamikak positiboak izan dira.
- Udalarentzat ere Ingurumen Mahaian parte hartzea ikasketa prozesu bat izan da.

### ZAILTASUNAK

- Mahaikide guztiek ez dugu kode berean hitz egiten.
- Enpatia falta sumatu da. Zenbait gai jorratzerako garaian gertutasuna, sentsibilitatea... gaiaren arabera ezberdina izan da.
- Eskumen falta, eragiteko gaitasun falta nabarmena izan da.
- Zaila izan da ondo ulertzea zer lortu dezakeen Ingurumen Mahaiak.
- 5. saioa atzerapausoa izan zen, zehaztasun faltagatik, ezin ulertzeagatik zein jarraipen izan dezakeen dinamika honek. Konfusoa eta kaotiko xamarra izan zen.
- Gaiak asko nahastu ditugu dinamikan. Aurrera begira lan-taldeetan funtzionatzea interesgarria litzateke, bakoitzak gai bat jorratzeko. Bestela, arriskua dago estankatzeko eta ilusioa galtzeko, jorratu beharreko gaiak oso zabalak baitira, eta eragiteko gaitasuna mugatua.

### SENTIPENAK

- Animoso hasi nintzen, toki egokia zela uste nuelako Oletako aldrebeskeria geratzeko eta horren inguruan Udalaren partetik informazioa jasotzeko. Horretara etorri nintzen baina bidean egindako lanarekin eta ikusitako jarrerekin, deskonfidantza sentitu dut. Hasieratik esan zitzaion mahai honi propositiboa zela, ez zuela erabakimenik izango. Orduan, zertan ari gara? Kontutan hartuko ditu benetan Udalak hemen erabakitakoak? Ez dut horren inguruan ziurtasunik. Hemengo erabakiek lotesleak beharko lukete izan. Gainera, ez dugu apenas Oletaz hitz egin.

- Sentsazioa gazi-gozoa da. Gai batzuei lehentasuna eman zaie baina beste batzuei ez. Horregatik uste dut lan-taldeka funtzionatzea interesgarria dela aurrera begira.
- Gaurko bilera argigarria izan da informazioa partekatzeko.
- Bi bando daude. Batzuek enpatia falta sentitu dute eta “a la defensiva” egon dira eta besteek, berriz, beren proposamenak ez direla aintzat hartu. Horregatik sentitu naiz berriro ere hasierako puntuan.
- Udalak gai honekin lana egiten jarraitzeko interesa ote daukan argitu behar du, ikuspuntu ekologista bat bere egiteko prestutasuna duen edo ez. Gaia transbertsala behar da izan. Bestela dinamika honek “10 txarla emango ditu eta punto”.
- Orokorrean, sentsazioa ona da. Hasieratik argi nuen zertara nentorren, dinamika eta egiteko modu berri baten hasieran gaudela argi izanik. Aurrerantzean parte hartzen jarraitu nahi dut eta ez dut inoren bandoan egon nahi. Hori da, nire ustetan, Ingurumen Mahaiaren erronka.
- Denon kezak jarri behar ditugu mahai gainean, ikuspegi transbertsaletik, ingurumena sustatzeko.

Talde eragileak ere, Azkoitin Ingurumen Mahaia sortu eta egituratzeko prozesua positiboki baloratzen du, hain anitza den lantalde bat elkar ulertzea eta elkarlanean jartzea erraza ez den arren. Bileraz bilerako bilakaera positiboa izan dela nabarmendu da, partaideen arteko giroan eboluzio bat ikusi delarik, nahiz eta, oraindik bakoitzaren behar eta nahi partikularretatik interes partekatuetara salto egitea kasu batzuetan kostatu egiten den. Hobetzeko artean, ideia bat nabarmendu da, Azkoitiko Udalak egiten den lanaren berri informatu beharra, batik batik, indarrean egon daitezkeen dirulaguntza edo aurreikusitako ekintzen berri emateko, honi nola toki egin aztertzea komeni da.

## 6 ERANSKINAK

1. Talde eragilea
  - Bileretako aktak
2. Ingurumen Mahaia:
  - Ingurumen Mahaiko funtzionamendu-irizpideak
    - Ingurumen Mahaiaren funtzionamendu egokirako ereduak
  - Ingurumen Mahaiko bide-orria
  - Ingurumen Mahaiaren bileretako aktak
3. Komunikazio-euskarriak:
  - Gonbidapen-gutuna
  - Argazkiak